

Juan Ignacio Vidarte

Guggenheim Bilbao Museoaren Zuzendari Nagusia

Juan Ignacio Vidarte, Guggenheim Bilbao Museoaren Zuzendari Nagusia, Bizkaiko hiriburuan jaio zen 1956ko otsailaren 20an. Ezkonduta dago eta bi alaba ditu.

Deustuko Unibertsitatean Ekonomia Zientziak eta Enpresa lizentzia lortu zuen, Bilbon, 1978an, eta graduondoko ikasketak egin zituen Estatu Batuetan, Cambridge-ko Massachusetts Institute of Technology-n (MIT).

1986 eta 1988 artean Bizkaiko Lurralde Azterlanen Erakundearen zuzendari izan zen, eta 1988an, Bizkaiko Foru Aldundiko Lurralde Ekintza Saileko zuzendari izendatu zuten; karguan izan zen 1989 arte. Urte horretan erakunde horretako Ogasun eta Finantza Politikaren zuzendari nagusi izendatu zuten.

1992an Guggenheim Bilbao Proiektuaren Partzuergoaren zuzendari izendatu zuten; partzuergoak ardura zuen Museo Bilbon eraikitzea eta abian jartzea. 1996ko abenduaren 18an Guggenheim Bilbao Museoaren Zuzendari Nagusi izendatu zuen Fundazioaren Patronatuak. 2008tik kargu hori eta Solomon R. Guggenheim Foundation-en Estrategia Globalerako Zuzendari Nagusiarena batera betetzen ditu.

Haren zuzendaritzapean, 1997ko urrian ireki zenetik, Museoak askotariko sari eta izendapenak jaso ditu; aipatzekoak dira: Arte Ederretako Merezimenduaren Urrezko Domina 1999an; European Museum of the Year saria 2000an, European Museum Forum erakundeak emandakoa; Zilarrezko Q saria kudeaketaren kalitateagatik, enpresa arloko EFQM bikaintasun ereduaren arabera, 2004an; Turismo Merituaren Xafla 2005ean; eta Euskaldun Unibertsal Saria 2007an.

Artikulu ugari argitaratu ditu, eta hitzaldi asko eman hainbat tokitan, hala nola, Deustuko Unibertsitatean, Salamancan, Valentzian, Coruñan, UNEDen, Universidad Menéndez Pelayo-n eta Harvard-en, Museoaren funtzionamenduaren, haren eragin ekonomikoaren eta “Guggenheim efektu” deitutakoaren inguruan. Horietatik azpimarratzekoa da Britainia Handiko Komunen Ganberan emandako hitzaldia, *The Bilbao Effect*. Horrez gain, estatuko eta nazioarteko foroetan esku hartu du; besteak beste, nabarmentzekoak dira: “Brusela, Europako Hiriburua” mintegia, Europako Batzordeak antolatutakoa, non izen handiek parte hartu zuten, tartean, Romano Prodi, Umberto Eco eta Rem Koolhaas; eta “Kulturaren aldeko Europarako Topaldiak” foroa, 2005eko maiatzean Frantziako Errepublikako presidentek bultzatuta antolatu zena eta zeinetan Europar Batasuneko herrialde guztietako artistek, intelektualek eta kultura arloko profesionalek esku hartu zuten. 2008ko irailetik New Yorken urtero egiten den Sormen Lidergo Globala gailurrean esku hartu ohi du.